



Usurbilgo Udala

AISIALDIKO BEGIRALE IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK

Diru-laguntzen Batzorde Orokorrak 2016ko uztailaren 22an egindako bilkuran, segidan jasotzen den ebazpen-proposamena egin du 2015/2016 ikasturtean aisialdiko begirale ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntzen inguruan.

Interesatuak, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epea dute ebazpen-proposamen honi alegazioak aurkezteko, beharrezko ikusten badute.

Usurbil, 2016ko uztailaren 22a.- Xabier Arregi Iparragirre, alkatea.

EBAZPEN-PROPOSAMENA

Ikusirik

2016ko ekainaren 20an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 27an hasi eta uztailaren 8an amaitu zen.

Epea amaitu ondoren, zazpi eskaera jaso dira.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituena.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008/07/01).
- 2015/16 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzako diru-laguntza oinarriak (GAO, 2016/06/20)

Ebazpen-proposamena

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak **ebazpen-proposamen** hau egiten dio Alkate-lehendakariari:

Lehenengoa: Diru-laguntza kopuru hauek onartzea.

	IZEN-ABIZENAK	DIRU-LAGUNTZA PROPOSAMENA	OHARRAK
1	Iñigo Sasiain Garcia	155,00 €	
2	Axier Dominguez Prieto	250,00 €	



Usurbilgo Udala

3	Ianire Furundarena Olasagasti	202,50 €	
4	Iruno Echave Larreta	202,50 €	
5	Maidier Sanchez Learte	202,50 €	
6	Jon Mikel Azpiazu Zubeldia	250,00 €	Diru-laguntza hau asistentzia ziurtagiria ekartzera baldintzatua dago.
7	Itziar Irazusta Larrea	155,00 €	
	Guztira	1.417,50 €	

Bigarrena: Interesdunak 2018ko uztailaren 30a baino lehenago titulua eskuratu izanaren agiria ekarri behar du udalera. Titulua udalera ekartzen ez bada, udalari jasotako diru-laguntza itzuli egin beharko zai.

Hirugarrena: Aisialdiko begirale ikastaroa egin dituztenentzako diru-laguntzak aurrekontu-partida honen kargura joango dira: 1.4400.481.326.00.01.2016 (A313/2016)

Laugarrena: Ebazpen proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesatuak alegazioak aurkezteko 10 eguneko epea izango du GAOn iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontaktzen hasita.

Bosgarrena: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Seigarrena: Aipatutako epean alegaziorik ez balitz aurkeztuko, ebazpen-proposamen hauek finkoak izatea.